

“A mí sólo me mataréis, pero mañana volveré y seré millones” (Túpac Katari)

Indigenak Kolonbian, biztanleagoren %2a dira, 80 talde baino gehiagotan sailkaturik. Talde hauetatik, 18 desagertzeko zorian daude. Kasu askotan, Kolonbiak bizi duen gerrate egoerarengatik, eta gatazka asko, beraien lurraldetan ematen direlako, aktore armatu ezberdinengatik erasotuak izan dira. Guzti honen ondorioz, oso sektore ahulean bilakatu dira, batzutan beraien liderrak erahilak izan direlarik, edo eta gartzelaratuak akusazio faltsuak medio eta beste askotan, beraien lurrak abandonatzeraino behartuak ere izan dira.

Guzti honez gain, bizi diren lurraldeek duten aberastasun itzela dela eta, multinazional handien harrapakin bilakatu dira. Urrea, petroleoa, platinoa, ikatza eta baliabide hidrikoen inguruan, megaproeiktu asko martxan daude, Kolonbiako gobernuak eman dizkien kontzesio lotsagarrien bidez.

Aurreko egunean, urriaren 12an, Caldaseko departamentuko Riosucio hiriaren inguruan, “embera chamí” etniako indigenek, lur sail bat berreskuratu zuten. Lur sail honen jabea, lurjabe zuri bat zen, eta “Cañamomo-Lomaprieta” deritzan babesgunearen barruan dago. Orain dela 14 urtetik ari ziren lur eremu hori eskatzen, eta gobernuak muzin egiten zien. Azkenean, oso ondo prestaturiko ekintza batean, errepidean barrikadak jarriaz, goizeko 5etan 100 bat indígena sartu ziren, behar den denbora guztia irauteko asmoz.

Enberen hizkuntzan, “enbera” hitza “pertsona” esan nahi du…
517.urteurrena, “pertsona duinen” egunean bilakatu zaigu…